

2. Egiategiren grafia sistemaz bi hitz

Hemen ez dugu *Aberatztarzun gussién guils bakhoitza* eskuizkribuaren grafia sistema xeheki aztertuko, helburua baita irakurleari gutxieneko orientabidea eskaintzea, testuaren bertsio eguneratuan obratu diren baliokidetzen berri emanez.

Bokalak

Zuberoako testuetan espero bezala, Egiategiren eskuizkribuan /u/ bokalari <ou> digrafoa dagokio, eta /y/ bokalari <u> grafema. Gainera, ohartarazi behar da Egiategiren <ao> grafia sistematikoki /aw/ dipton-goari lotua dela (*haor*, *laor*, *aossiki*, eta abar). Diakritikoei dagokienez, eskuizkribuan kausitzen diren zeinu gehienak frantses grafien isla huts dirateke, inolako balio fonologikorik gabe: /e/ bokalak usuenik <é> itxura du, eta /j/ irristariak <ï> itxura, inoiz <ÿ> ere. Balio fonologikoa duten diakritiko bakarrak <~> eta <^> markak dira, bokal sudurkarien adierazpenari lotuak direnean. Halaber, sudurkaritasuna hasperenarekin bat denean, Egiategi bestelako soluziobidez balia daiteke (*inhon* 19r, *quinhaorec* 31v).

IZKRIBUAN	ADIBIDEAK	BALIOA	EGUNERATZEA
é	<i>diratéké</i> 55v, <i>sézénarékila</i> 19v	/e/	e
ï	<i>honkî</i> 13r, <i>leïcé</i> 18r, <i>khoï</i> 24v	/i/, /j/	i
y, ÿ	<i>guey</i> 13v, <i>eliroyéna</i> 22v, <i>eÿhérala</i> 27v	/j/	i
ou	<i>gouré</i> 1v, <i>ikhoussi</i> 2r	/u/	u
u	<i>Juseff</i> 1r, <i>curcurus</i> 51v, <i>utzul</i> 54r	/y/	ü
ao	<i>aohér</i> , <i>hao</i> , <i>haor</i> , <i>Jaonaren</i> , <i>zaoriric</i> 32r	/aw/	au
ã, ï, õ	<i>saffrârékila</i> 38r, <i>ihourc</i> 6v, <i>thapõa</i> 43r	/ã/, /ï/, /ũ/	a, i, u

Kontsonanteak

Fonema kontsonantikoen artean, zailtasun nabariak konbentziaz *txistukari* deituko ditugun hotsen sailean dautza. Izkribuan gaindi bereizkuntza grafikorik sendoena AHOSKABE VS AHOSTUN oposizioari dagokio. Gainerakoan, txistukariak adierazten dituzten grafemak

ez zaizkio artikulazio gune bati ala besteari erreserbatzen; salbuespena <tch> izan daiteke —halere, haren erabilpena defektiboa da—.

Txistukariak

IZKRIBUAN	ADIBIDEAK	BALIOA	EGUNERATZEA
ce, ci	<i>celia</i> 1v, <i>acia</i> 6r	/se/, /si/	ze, zi
ce	<i>cey</i> 13r	/ʒe/	se
s	<i>sappa</i> 8r, <i>moustu</i> 12v, <i>aldis</i> 11v	/s/	z
s	<i>sagarra</i> 8r, <i>estal</i> 11v, <i>nahas</i> 11v	/ʒ/	s
s	<i>dosa</i> 37v	/z/	z
s	<i>deusére</i> 48r, <i>Juseff</i> 30r, <i>arreseki</i> 18r	/z/	s
ss	<i>guisson</i> , <i>gussiac</i> , <i>bissi</i> 6r	/s/	z
ss	<i>ossoki</i> , <i>itchoussi</i> , <i>ikhasi</i> 6r	/ʒ/	s
z	<i>guizonac</i> 4v, <i>hazcurria</i> 18v, <i>huscaraz</i> 3v	/s/	z
z	<i>roza hour</i> 38v, <i>coperosa</i> 39r	/z/	z
z	<i>deuzére</i> 7r, <i>eznia</i> 7v, <i>cazu</i> 5r	/z/	s
z	<i>arrozac</i> 48r	/ts/	tz
ch	<i>chahu</i> 9v, <i>achouri</i> 15r, <i>merluch</i> 13v	/ʃ/	x
ch	<i>alchatzen</i> 39v	/tʃ/	tx
sch	<i>gashour</i> 38r, <i>engoschac</i> 43r	/ʃ/	x
tz	<i>deitzen</i> 52v, <i>gorotz</i> 8r	/ts/	tz
tz	<i>etzaÿ</i> 52v, <i>sinhetz</i> 7v	/tʒ/	ts
dz	<i>zaitrandzen</i> 14v	/ts/	tz
ts	<i>tsappa</i> 42v, <i>berhats</i> 47r	/ts/	tz
ts	<i>hatsarrian</i> 12r, <i>haots</i> 13v	/tʒ/	ts
x	<i>apoplexia</i> 48r	/ʃ/	x
x	<i>arraxes</i> 41r	/tʒ/	ts
tch	<i>etchen</i> 50r, <i>tchilintchao</i> 14r, <i>altchatzen</i> 30v	/tʃ/	tx
tsch	<i>itschasso</i> 43r	/tʃ/	tx

Hots sabaikarituak

IZKRIBUAN	ADIBIDEAK	BALIOA	EGUNERATZEA
ñ	<i>gaiñen</i> , <i>oiñhou</i> , <i>saiñ</i> 33r	/ɲ/	ñ
gn	<i>gaignerasturic</i> 7v, <i>pugnatzac</i> 37r	/ɲ/	ñ
ll	<i>llabur</i> 4r, <i>neskatilla</i> 2r, <i>huillen</i> 2v	/ʎ/	ll
ll̃	<i>nescatilla</i> 4r, <i>huillen</i> 7v, <i>perésill</i> 14v	/ʎ/	ll
tt	<i>guttitto</i> 38r	/c/	tt

Herskari hasperendunak

Egiategiren eskuizkribuan herskari hasperendunen markatze grafikoa ez da sistematikoa. Ediziozileak hots horiek eskuizkribuan grafikoki markatuak direnean baizik ez ditu testu modernizatuan islatu.

IZKRIBUAN	ADIBIDEAK	BALIOA	EGUNERATZEA
pp	<i>ppessias 1v, appal 15v, appur 15v</i>	/p ^h /	ph
tt	<i>tturbutz, ttappatzen 4r, ttupuiñ 28v</i>	/t ^h /	th
th, tth	<i>athia 1v, ourthé 2v, battheiäguian 3r</i>	/t ^h /	th
dh	<i>adheratzen 11v, didhi 32v</i>	/t ^h /	th
kh	<i>khent, kharioago, ukhus 29r</i>	/k ^h /	kh
ckh	<i>backhoitza 32v, ackhassatzen 53r</i>	/k ^h /	kh